

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

524

IRAGARKIA, 2024ko urtarilaren 18koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Kuartango, Zuia, Vitoria-Gasteiz eta Badaiaiko Partzuergoa udal-mugarteetan Cluster Eólico «Jundiz 30 kV» parke eolikorako alde z aurreko administrazio-baimenaren eskaera.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Cluster Eólico «Jundiz 30 kV» parke eolikorako aurkeztutako alde z aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Enigma Green Power Solar 02 (IFK: B02936748), bere izenean eta Enigma Green Power 03 SLU (IFK: B02936763), Enigma Green Power 04 SLU (IFK: B02936730), Savanna Power Solar 19 SLU (IFK: B02993608) eta Savanna Power Solar 20 SLUren (IFK: B02991917) ordezkar i gisa.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Kuartango, Zuia, Vitoria-Gasteiz eta Badaiaiko Partzuergoa (Araba).
- Haize-sorgailuen kopurua: 5.
- Instalatu den potentzia gordina: 24,95 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalaren UTM koordenatuak (ETRS89 HUSO 30)		
Erpina	UTM x	UTM y
1	508.379,23	4.752.035,08
2	511.771,00	4.752.035,08
3	511.771,00	4.751.567,79
4	515.324,85	4.751.567,79
5	515.324,85	4.749.885,26
6	516.624,64	4.749.885,26
7	516.624,64	4.748.283,01
8	515.929,66	4.748.283,01
9	515.929,66	4.749.453,62
10	514.270,01	4.749.453,62
11	514.270,01	4.750.138,73
12	511.405,44	4.750.138,73
13	511.405,44	4.750.757,93
14	509.049,16	4.750.764,06
15	509.04916	4.747.075,72
16	508.377,60	4.747.075,72

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeiei eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Industria Administrazioako Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 18a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRÍGUEZ DÍAZ.